


# Itsasoa
# El Mar de los Vascos

*(...)*
*Munduaren izena okerra da lurra deitzen denean*
*Itsaso gehiago da lurra baino*
*Amak itsasoko bildugarriez hitzegiten zidan eta itsasoan*
*Hildakoentzat egiten situen otoitzik gehienak*
*Baina bere malko bakoitzak itsasoko ura geitu*
*Baino ez zuen egiten*

***J. Sarrionaindia***

Itsaskitan eta arrantzan ibiltea ohizko estrategiak dira ekonomia harrapakariaren barruan. Halan be, kondairaurreko gizakiak, gizateriaren jatorritik (orain dala bi milioi urte gitxi gorabehera) Madeleine aldiaren amaierara arte (K.a. 10000. urtea gitxi gorabehera), batez be, ehizari, eta fruituak eta landareak batzeari baino ez eutsan ekin. Aldi horretatik aurrerantza hasi ziran itsasoko baliabideen bila, hasiera baten kostaldeko hatxetako itsaskiak batzen eta, geroago, arrantzan lehenengo saiakerak egiten.

K.a. 5000. urtetik aurrera gitxi gorabehera, Epipaleolitikoan, itsaskitan ibili beharrean benetako arrantzan hasi ziran, izokinetan eta kostaldeko arrainetan. Baina Neolitikoan K.a. 4000.urtea gitxi gorabehera) ekonomia ekoizlea nagusitu zan harrapakariaren ganetik eta era horretako arrantza bertan behera geratu zan. Erromanizazioagaz batera arrantza gero eta gehiago zabaldu zan, eta horretan lagungarri izan zan arraina gatzetan ipintearen teknika erabilten hastea.

Apurka-apurka, itsasertzeko uriak sortuaz batera (XII-XIV. mendeak), itsasoak eskaintzen dituan baliabide eta aukera ekonomikoak indar haundiagoagaz ustiatzen hasi ziran. Itsas merkataritzak, arrantzak eta jarduera horreen inguruko industriek –euren artean itsasontzigintza dogu indartsuena eta puntakoena- Euskal ekonomian eta gizartean protagonismo berezia hartuko dabe.

El marisqueo y la pesca son parte de las estrategias características de la economía depredadora. Sin embargo, los hombres prehistóricos desarrollaron desde el origen de la Humanidad (hace 2 millones de años aprox.) hasta el final del Magdaleniense (+10.000 a.C.) de manera significativamente exclusiva la caza y la recolección de frutos y vegetales. Sólo a partir de esta fecha comenzaron a explotar los recursos marinos, primero recogiendo los mariscos que habitan las rocas costeras y luego practicando tímidamente la pesca.

A partir del 5.000 a.C. aprox., en el Epipaleolítico, el marisqueo empieza a ser sustituido por la pesca, sobre todo del salmón y las especies costeras. Pero ambas prácticas tienden a desaparecer a partir del Neolítico (+ 4.000 a.C.), cuando se introduce la economía productora. Con la Romanización la práctica de la pesca se extiende, a lo que ayuda la técnica de la salazón de pescado.

Progresivamente, y con especial incidencia a partir de la fundación de las villas costeras (siglos XII-XIV), se va produciendo una explotación intensiva de los recursos y posibilidades económicas del medio marino. La navegación comercial, la pesca y las industrias generadas en torno a estas actividades, entre las que destaca la fuerza y pujanza de la construcción naval, adquirirán un especial protagonismo dentro de la historia económica y social vasca.












Euskal herritarrok itsasoagaz izan dogun lotura estu eta luze honetan hainbat eta hainbat pasadizu, jazoera eta izen egin dira ezagun: Elkano, Mazarredo edo Txurruka, Ternuan balea eta makailaotan izandako abentura, Euskal ontzioletan egindako itsontzien ospea eta izen ona, Bilbao eta Donostiako kontsulatuak, Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarra, Pesquerías Vascas del Caribe izeneko enpresa….

Baina horregaz guztiagaz guztiagaz batera ezin doguz alde batera itxi kostaldeko herrietako eguneroko gorabeherak, itsasoaren aldamenean eta itsasotik bizi diran gizonak eta emakumeak, itsasotik zer ekarri zain eta itsasotik zer etorriko bildur bizi diranak, hango arriskuen menpe, eta horren inguruan ekanduak, ohiturak, tradizioak, erakundeak eta arauak sortu dituenak, berezko mundo kulturala eta bizimodua eratuaz. Horixe da erakusketa honetan erakutsi nahi doguna.

En esta larga y estrecha relación de los vascos con el mar brillan con luz propia ciertos episodios, acontecimientos y personajes. Las figuras de Elcano, Mazarredo o Churruca, la aventura de las pesca de la ballena y el bacalao en Terranova, la fama y prestigio de las naves labradas en los astilleros vascos, los Consulados de Bilbao y San Sebastián, la Compañía Guipuzcoana de Caracas, la empresa Pesquerías Vascas del Caribe…

Pero junto a ellas se registra el cotidiano devenir de las poblaciones costeras, de unos hombres y mujeres que viven en el mar y del mar, pendientes de la incertidumbre de sus frutos y bajo la amenaza continua de sus riesgos y peligros, generando una serie de usos, costumbres, tradiciones, instituciones y normas… conformando, en definitiva, un mundo cultural, un modo de vida que centrará el contenido de esta exposición.




"Itsasoa"ri buruzko aretoan, 270m²-ko espazion, kultura materialari jagokozan elementuak eta informazio grafikoa, dokumentala eta berregite eszenografikoak konbinatuz, gure Herriak itsas munduagaz izan dauan hartuemon oparoa erakusten da. Kondairaurreko arrastoetatik hasi eta Erdi Aroko eta Aro Modernoko barriakaz jarraituz, erakusketak hurrengorik hurrengo garoaz arrantza arlo guztietan barrena: portuak, itsasoa eta itsas espezieak, familia eta gizarte arrantzalea, itsasontziak eta ontzigintza, arrantza eta eskulagintza, ohiturak eta siniskeriak eta, amaitzeko, lurralde honetan izan diran marinel eta itsasgizonen –izen handikoak batzuk, anonimoak gehienak- oroigarri, omenaldia egin jake guztiei.

En un espacio de 270m², y combinando elementos de cultura material con información gráfica, documental y recreaciones escenográficas, la Sala dedicada a "El Mar de los Vascos" muestra una serie de aspectos que ilustran la larga y fructífera relación de nuestro Pueblo con el universo marino. Comenzando por los restos prehistóricos y continuando con noticias de la época medieval y moderna, la exposición, en un recorrido lineal, nos acerca a los puertos, el mar y las especies marinas, la familia y la sociedad pesquera, los barcos y la construcción naval, la pesca y oficios artesanales, las costumbres y creencias, para finalizar con un homenaje y recuerdo a los marinos y navegantes, famosos unos, anónimos los más, que a lo largo de los tiempos han visto la luz en esta tierra.

EUSKAL MUSEOA · BILBAO · MUSEO VASCO
Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 BILBAO
Telf. +34-94-415 54 23 - Fax +34-94-479 06 08
http://euskal-museoa.org - museoa@euskal-museoa.org